



Bolondres Sarea eta Zaintza Talde Iraunkorra, adinekoei erosketak egin eta haurrak zaintzeko



Hainbat astigartar segurtasunezko distantzia errespetatzen eta ilara egiten, atzo goizean, erosketak egiteko.

Hainbat herritarrek laguntza eskaini dutela eta, sarea sortu du Astigarragako Udalak. Telefonoz deitu behar da, laguntza eske: 943 33 52 32. Hernanin, berriz, dagoeneko jarri dute martxan Zaintza Talde Iraunkorra: 690 145 760.

URUMEA KORONABIRUSA

Hainbat talde ari dira mobilizatzeko egun hauetan, laguntzeko COVID-19 edo Koronabirusaren aurrean arrisku gehien izan dezaketen bizilagunei. Eta Astigarragan eta Hernanin, atzo jarri zuten martxan talde bana.

Bolondres Sarea sortu du Astigarragako Udalak, hainbat herritar haiekin harremanetan jarri ondoren, laguntzeko prest. «Bejondeizuela! Arriskuak arrisku, laguntzeko prest agertu zarete. Eta bai, bada zertan lagundu», adierazi du Udalak: «pertsona askok zailtasunak izan ditzakete oinarritzko gauzak egiteko, eta haiei laguntzeko sortu dugu sarea. Inguruko laguntza ezinbestekoa da, bizitzen ari garen egoerari aurre egiteko», dio.

Bi motatako laguntza eskai-

niko du Bolondres Sareak: etxean dauden adineko pertsonen erosketak egin (elikagaiak eta botikak), eta haurrak denbora batez zaindu.

Horretarako, boluntario bila dabilta, eta hiru baldintza daude: 18 urtetik gorakoa izatea; sukar, ahulezia, buruko min edota ezularen sintomarik ez izatea; eta Koronabirusa izan duen edota harekin kontaktua izateagatik kuarentenan dagoen pertsonaren batekin harremanetan ez egon izana. Baldintzak bete eta lagundu nahi dutenek, izena eman dezakete: astigarraga.eus web orriko formularioa beteta, edo Udaleko Gizarte Zerbitzuetara deituta (943 33 52 32). Izena emandakoekin harremanetan jarriko dira, egin ditzaketen lanak adosteko.

Laguntza behar duenak ere, Gizarte Zerbitzuekin jarri behar

du harremanetan: 943 33 52 32 telefonoan, edo ongintza@astigarraga.eus eta alkatetza@astigarraga.eus emailetan.

Zaintza Talde Iraunkorra prest, Urumea Herriguneak

Bestalde, aurreratu zuen bezala, Zaintza Talde Iraunkorra jarri du martxan Urumea Herriguneak, Hernanin. Udalarekin bildu ziren atzo, eta bere «babesa eta, ahal den neurrian, laguntza» eskaini zien Udalak. Hainbat erabaki hartu zituzten: taldeko boluntario bakoitzak izatea Erantzukizun Zibileko aseguru, eta akreditazioa Herrigunearen izenean, Udalaren babesarekin; eta taldea 25 laguneko izatea hasieran, lanari eta antolaketari neurria hartzen joateko, nahiz eta pixkanaka haundiagoa izatea aurreikusituta duden.

Astigarragan bezala, arrisku gehien dutenei erosketak egin, eta haurrak zaintzea izango du helburu, taldeak. Laguntza jasotzeko, 690 145 760 telefonora deitu daiteke, edo [whatsapp](https://www.whatsapp.com) bidez idatzi 691 651 850 zenbakira.

Laguntzeko, berriz, [whatsapp](https://www.whatsapp.com) bidez idatzi: 663 473 045. **K**

«Langile faltagatik itxi dugu harategia, eta ez Koronabirusa dugulako»

Felix Alberdik argitu du, sukar pixka batekin hasi zela igandean, baina ez diotela probarik egiten: «hilabete neraman ez tul txar batekin».

HERNANI ALBERDI HARATEGIA

Itxita dago Hernaniko Alberdi harategia, astelehenetik, atean abisua jarrita: *harategiko langile batek COVID-19 birusaren sintomak sumatu dituenaz, prebentzio neurri gisa, harategia itxita egongo da emaitzak jakin bitartean*. Felix Alberdi jabea bera da aipatutako langilea: «igandean eman zidan sukar pixka bat, baina hilabete neraman ez tul txar batekin, eta aurreko lau egunetan paliza handia hartu nuen lanean», azaldu du. Ordutik, probak egiten saiatu da, Koronabirusa ote daukan deskartatzeko: «baina kuarentenan jarri naute, eta ez didate probarik egiten», dio. Hori horrela, «nik etxean geratu behar izanda, eta beste langile bat bajan daukagunez, ixtea erabaki genuen, ezin genuelako utzi lan guztia hiru langileren esku. Jende faltagatik itxi dugu, ez Koronabirusa daukagulako», argitu du.

Felix Alberdik azaldu du, «gaizki» daramakitela egoera: «gustatuko litzaiguke bezeroei eta herritarrei zerbitzua ematea. Eta lasai asko ireki ahal izango genuke, hala esan digu Osakidetzako medikuak. Gainera, langileek ez daukate sintomarik. Baina ezin diet eskatu lan bikoitza egiteko. Ez



Emakume bat, oharra irakurtzen.

zaigu etikoa iruditzen egoera honetan irekitzea».

Beraz, azpimarratu du, ez dutela itxi «kontaminatuta dagoelako, zerbitzua emateko jende nahikorik ez daukagulako baizik». Jakinarazi du, 15 egun barrurako eman diotela alta, eta dena ondo bidean, epe hori igarota irekiko dutela.

Bitartean, daukaten jeneroa txartu ez dadin, bi langile joango dira, «guztia despiezatu eta konjelatzera; eta astero egiten dugun bezala, harategi osoa lejiarekin garbitzera».

«Lasai asko ireki ahal izango genuke, baina ezin diet eskatu langileei, lan bikoitza egiteko; ez da etikoa»

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

sulabe
Valella okindegia
Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, martxoaren 23ra arte:
kronika@kronika.eus
Dobera Euskara Elkarte
Larramendi 11 behea
20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:
/ Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.
/ Iniziatiba eta enpatia.
/ Publizitate edo komunikazio ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAI:
/ Kontratua: sei hilabetetarako.
/ Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:
/ Urumea bailara ezagutzea.
/ Doberako bazkide izatea.
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.
/ Publizista lanetan esperientzia.
/ Maketatzeko eta diseinu programen ezagutza.
/ Sare sozialak menperatzea.

Kronika DOBERA

Baldintzak betetzen dituztenez artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

GAUR Giro eguzkitsua izango dugu, orokorrean, nahiz eta lainoak agertuko diren egunaren hasieran, barnealdean bereziki. Tenperaturak gora egingo du, eta baliteke arratsaldean bero lainoak sortu eta zaparradaren bat botatzea, mendi inguruetan. **Min.10° / Max.18°**

BIHAR Berdintsu egongo da bihar ere. Goizean goiz lainoak agertu arren, eguzkitsu geratuko da berehala. Arratsaldean, berriro, bero lainoak sortu daitezke. Hego-haizea indartu egingo da, eta bolada oso gogorrak espero dira. **Min.12° / Max.21°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 943 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Baliabideak erakunde publikoen zerbitzura, Kronikak eta Tokikomek

Adierazpen instituzionala argitaratu dute, eta nabarmendu dute, beraien ekarpena egin nahi dutela, «krisia ahalik eta azkarren konpontzeko».

URUMEA KRONIKA-TOKIKOM

COVID-19 edo Koronabirusak eragindako egoeraren aurrean, Kronikak eta Tokikomek erakutsi nahi izan dute bere «erabateko prestutasuna» eta «krisi egoeratik irteten laguntzeko ekarpena egiteko borondate irmoa». Hori azaleratzeko, adierazpen instituzional bateratua argitaratu dute:

«COVID-19 birusaren hedapenak gurean sekula ikusi gabeko egoera batera ekarri gaitu, eta neurri gogorrak hartzeraz bultzatu ditu erakunde publikoak, gaitzaren zabalkundea murriztu, arriskupeko populazioa babestu eta osasun sistema publikoaren kolapsoa saihesteko asmoz. Neurri horien artean, alerta egoeraren deklarazioa eta, haren barruan, herritarrak informatu eta sentiberatzeko kanpainak egiteko betebeharrak ezarri diote erakundeek euren buruari.

Kronikaren zuzendaritzak eta

Tokikomek herritarren arteko komunikazio tresna eraginkorra izateko eta zerbitzu publikoa betetzeko funtzioa betetzeko bokazio argia dute. Bokazio horretatik, eta gertuko komunitatearekiko konpromisotik, bere egiten dute salbuespeneko egoera honetan herritarrak zehatz eta garaiz informatuta mantentzeko zeregina, eta krisi egoeratik irteten laguntzeko ekarpena egiteko borondate irmoa azaldu nahi dute. Hori dela eta, eskura dituzten baliabideak jarri nahi dituzte erakunde

«Eskura ditugun baliabideak jarri nahi ditugu erakunde publikoen zerbitzura, zabaldu nahi dituzten mezuak herritarrei helarazten laguntzeko»

publikoen zerbitzura, zabaldu behar dituzten zerbitzu publikoko mezuak herritarrei helarazten laguntzeko.

Kazetaritza lanari dagokion behaketa kritikoari uko egin gabe, Kronikak eta Tokikomek beren ekarpena egin nahi dute krisi hau ahalik eta azkarren konpontze aldera, eta erabateko prestutasuna adierazten dute erakunde publikoei hedatu behar dituzten mezu informatiboak ahalik eta azkarren eta eraginkorren hedatzen laguntzeko, alerta egoerak dirauen bitartean.

Krisi honetatik onik ateratzeko modu bakarra gizarte eta komunitate osoaren konpromisoa eta elkarlan aktiboaren uste sendotik, beraz, Kronikak eta Tokikomek erabateko lankidetzari eskaini nahi diete, Urumea bailarako Udalei, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Euzko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari, beti ere herritarrak egoki eta puntual informatu eta egoeraren larria ahal den neurrian leuntzeko asmoz.

Komunitate osoak elkar hartuta, egoerari buelta emango diogulakoan gaude». **K**

Datu onak Gipuzkoan, okerragoak Nafarroan

Positibo berri bakarra izan zen atzo Gipuzkoan, baina 76 gehiago Nafarroan, eta hirugarren hildako bat, 88 urterekin.

URUMEA KORONABIRUSA

Ezberdina izaten ari da, egunez egun eta lurraldearen arabera, COVID-19 edo Koronabirusa uzten ari den datu sorta. Eta atzokoan, halakoak izan ziren Gipuzkoan eta Nafarroan osasun zerbitzuek eman zituzten datuak eguerdi partean. Osakidetza zehaztu zuen, hala ere, bezperako iluntzeko 20:00etako datuak zirela horiek, eta ez atzoko goizeko 08:00etakoak, orain arte eman dituzten bezala. Horrela izango da aurrerantzean ere, Osasun Ministerioaren metodologiarekin bat egiteko.

Gipuzkoan, atzo emandako datuetan, kasu positibo berri bat bakarrik zegoen kontabilizatuta, 90 guztira; eta 32 pertsona zeuden ospitalizatuta. Hildako berririk ez zen izan.

Nafarroan, ordea, gora egin zuten positibo berriek, eta 274

izetatik, 350 izatera pasa zen atzo, 76 kasu berrirekin. Gainera, arratsaldearen hasieran, hirugarren hildako bat izan zen, 88 urteko emakume bat.

Euzko Jaurlaritzak jakinarazi zuen, era berean, orain arte 3.500 proba egin dituela Osakidetza, Koronabirusarekin lotuta. Eta jakinarazi zuen, gero eta gehiago direnez sintomak dauzkatzen pertsonak, orain lehentasuna emango dietela «arrisku gehien izan dezaketzen pertsonen, gaixotasun larriagoren bat izan dezaketenei, edo kontu gehiago izan behar dugun taldeetakoiei». **K**

ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN	NAFARROAN
1 positibo berri	76 positibo berri
90 positibo guztira	350 positibo guztira
5 hildako	3 hildako
32 ospitalizatuta	93 ospitalizatuta

Laiztiaga eta Sagastialde auzoak lotuko dituen aldapa berria, prest

Dagoeneko bukatu du Udalak, Laiztiagara doazen oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko aldapa.

HERNANI UDALA

Erabilgarri dago, joan den ostiraletik, Laiztiaga eta Sagastialde auzoak lotzen dituen aldapa berria. Joan den astean bukatu zituzten obrak, eta horien helburua izan da, «auzo hauetan ibiltzen diren oinezkoen irisgarritasuna hobetzea», Hernaniko Udalak azaldu duenez.

Izan ere, aldapa berriari esker, bide motzagoa egingo dute aurrerantzean, Laiztiagara doazen oinezkoek. Orain arte, atletismo pistatik edota haur eskolatik bertara igotzeko, eskaileretatik joan behar izaten zuten; eta mugikortasun arazoak dituztenek, edo ume ka-



Haur eskolaren ondotik, Laiztiaga auzora igotzen da aldapa berria.

roekin dihoazenez, ibilbide luzeagoa egin behar izaten zuten. «Orain, Laiztiagarako joan-etorriak azkarragoak izango dira», ziurtatu du Udalak.

Beheko aldean bi bide dauzka aldapak, haur eskolaren alde bakoitzetik bat

Garai bateko tranbiaren pasealekutik abiatzen da aldapa, eta bi bide ezberdin ditu beheko aldean. Haur eskolaren atzeal-

dean, alde banatatik abiatzen dira bi bide horiek, eta aldaparen erdi parean elkartzen dira, Laiztiagara batean iristeko. 2,4 metroko zabalera dauka aldapak, eta 12 metroko luzera. Obraren kostua 114.000 eurokoa izan da, baina Euzko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso du Hernaniko Udalak, 40.168,79 eurokoa, irisgarritasuna hobetzen duten obrei ematen zaien dirulaguntza lerroen barruan. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† DOLORES LUJAMBIO LOYARTE
ANDREA
(Bixente Zubiriren alarguna)
Atzo hil zen, 90 urte zituela
- Goian Bego -



Seme-alabak: Joxe Mari eta Karmen, Lurdes eta Alfredo, Juan Joxe, Miren eta Dirk, Argiñe eta Oskar; bilobak: Ibai eta Irtaxe, Egoitz eta Arantxa, Lehiore eta Angela, Nahikari eta David, Jare eta Ur; birlobak: Laiene, Nahia eta Eñaut; ahizpa: Milagros; eta ezkon anai-arrebak.

Familiak jasotako doluminak eskertzen ditu eta gaur egungo osasun egoera ikusita, agurra senitartean egingo da. Egoerak ahalbidetzen duenean, zehaztuko da hileta.

Goizuetan, 2020ko martxoaren 18an

ANGEL VILLALBA FLORES



GURE TXOKO ELKARTEA

Hernanin, 2020ko martxoaren 18an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**